

Laudio, 2020ko azaroaren 24a

# **EAJ-PNV Laudiok 2021erako udal aurrekontuen onarpena ospatu du, 24 milioi euro baino gehiagoz hornituta**

- *Bigarren urtez jarraian, udalaren kontu orokorrak, errealistak eta herriko egoera sozioekonomikoarekin bat datozenak, garaiz eta behar bezala onartu ditu udalbatzak, herritarren beharrei aurre egin ahal izateko, eta, horrez gain, funtsezko hamar bat proiektu gauzatu ditu*

Astelehen honetan egindako osoko bilkuran, bigarren urtez jarraian eta EH-Bilduren esku aurreko alkatetza hainbat urtez luzatu ondoren, Laudioko Aurrekontu Orokorraren proiektua onartu da datorren urterako, kasu honetan 2021erako, EAJ-PNV eta PSE-EE Gobernu taldea osatzen duten alderdien aldeko botoekin. Oposizioko alderdiek, EH-Bilduk eta Ominak, aurka bozkatu dute.

EAJ-PNV Laudio oso pozik dago lorpen handi hori dela eta; izan ere, aurrekontuak tresnarik garrantzitsuena dira edozein erakundetan urtebeteko epean udal ekonomia eta finantzak planifikatzeko eta kudeatzeko, urtean zehar egin nahi diren diru-sarrerak eta erabiliko diren gastuak jasotzen baitira bertan. Bere banaketak Udalaren benetako lehentasunak finkatzen ditu, udalerrian garatu beharreko helburuak eta ekintzak zehaztuz, betiere udal finantzen beharrezko egonkortasunaren printzipiotik abiatuta.

"Bizi dugun ziurgabetasuna kontuan hartuta, eta edozein unetan norabide aldaketa handia izan dezakeen egoera guztiz aldakorra eta apartekoa dela kontuan hartuta, azken asteetan ikusi den bezala; ez da lan erraza aurrekontu bat egitea, eta are gutxiago Laudion, Arabako bigarren biztanle-kopuruan, eta aurrekontu oso konprometitua, iaz azaldu genuen bezala, ezohiko egoera bat gehituz, ezohiko neurriekin".

## Osasun-egoerak markatutako kontuak

2021. urteko aurrekontuak aldi berean planteatzen zaizkigun eszenatoki desberdinak jasotzen ditu, baina oso desberdinak elkarren artean. Gastuei eta inbertsioei dagokienez, alde batetik, COVID-19k hizpide duen egoera arintzeko partidak hornitzea, familiei, garbiketei, gizarte-laguntzei, eragindako sektoreentzako laguntzei (ostalaritza eta/edo merkataritza, esaterako) erabateko lehentasuna emanez.

Bestalde, herriaren eguneroko dinamikarekin jarraitzea, denak normaltasunez funtzionatzen jarrai dezan, hau da, kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitzea, eta udalerrria gelditu ez dadin eta legegintzaldiko planean ezarritako proiektu estrategikoetan ahal den neurrian aurrera egiten jarrai dezan saiatzeari. Horregatik guztiagatik, egoera hori izan da 2021erako aurrekontuen oinarria eta bizkarrezurra, eta gaur egun COVID-19rekin dugun egoera sozioekonomikoak baldintzatuko ditu, baina betiere ekintzaileak kontuan hartuz eta babestuz, eta, aldi berean, gazteentzako, enplegurako, berdintasunerako, euskararako eta elkarteentzako laguntzarako programak sustatzen jarraituz. Inbertsio estrategikoak ahaztu gabe, Antzokia kasu, Laudiok aurrera egiten jarrai dezan.

Zenbakietan, aurrekontu hauek aurreko ekitaldiko antzekoak dira: 23.520.725,26 euro 2020an eta 23.566.712 euro 2021ean. Euskaltegiaren kasuan, partida 729.771,13 eurotik 841.368 eurora igo da. "Aurrekontu errealistak, parte-hartzaileak eta biziak dira; izan ere, ia egin genuen bezala, urteko kontratuen eta konpromiso-kredituen partida guztiak egokitu ditugu, bakoitzak bere partidan izan dezan kontratuan benetan duen zenbatekoa, eta 2020an eta 2021ean eguneratu eta egokitu egin dira zaharkituta daudelako".

Laudioko bizilagunek Udala gobernatzeko eta kudeatzeko modu desberdinak daudela ikusi eta egiaztatu behar dute: zorroztasunez, parte hartuz, eraginkortasunez eta gardentasunez, EAJ-PNVren kontu emate iraunkorren bidez, EH-Bilduren opakutasunaren, desantolaketa-aren eta aurrekontuen luzapenen aurrean, 2017tik **Ander Añibarro** alkatezara iritsi arte.

**"Laudioko EAJ-PNVren ahaleginari eta kudeaketari esker esnatu da eta ez dago atzera bueltarik, nahiz eta batzuk berriro lokartu".**